

‘Patxi Errementaria’ ipuinean oinarritutako filma aurre-ekoizpen fasean dago

2016/03/29

EGILEA: ANE FERNANDEZ

Paul Urkijo zuzendari gasteiztarraren lehen luzeak Jose Miguel Barandiaranek 1903an idatzitako ipuin mitologikoa eramango du pantaila handira, Kinoskopik zine ekoiztetxearen bidez, eta Gariza Filmsek lagundurik. *Errementari* filma euskaraz errodatuko da, 2016ko udazken-negu partean, eta ahal den heinean irudi errealekin, gutxieneko babes digitalaz lagundurik behar denean.

“Errementari zital bati buruzko baserri giroko ipuin bat da, gizona hain da gaiztoa zein deabruak ere beldur dioten.” Urkijok lau urte daramatza txikitatik bere ipuin gogokoena izan den horretan lanean, “betidanik egin nahi izan dut berarekin pelikula bat.” Mitologiaren eta kondairen zale sutsua izanik, zuzendari arabarraren lanak genero fantastikoaren barruan sailkatu izan dira. Aurretik sortutako film laburrekin 85 sari irabazi ditu estatuan eta nazioarte mailan.

Belgikako Frontières Ekoizleen Topagunera bidean

Berlinale jaialdian **The Project** ekoiztetxe frantsesarekin **koprodukzio hitzarmen** bat sinatu ostean, *Errementari* zine fantastikoaren ekoizle, banatzaile eta salmenta-agente inportanteenak biltzen dituen Belgikako Frontières Ekoizleen Topagunerako aukeratua izan da, beste hemeretzi lanekin batera. Luis Oza ekoizlearen esanetan (Kinoskopik) “**Errementari Frontières-erako aukeratzeak aurreprodukzioaren Oscarretarako hautatua izatea bezalakoa da.**” Jaialdia martxoaren 30etik apirilaren 1era izango da.